

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

325/2019 Foru Dekretua uztailaren 5eko, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak izendatzen dira 2019-2023 legegintzaldirako

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, 19. artikuluan, diputatu nagusiarentzat gordetzen du Aldundiaren sailak eta haien eskumen eremuak ezartzeko ahalmena, baita foru diputatuak izendatu eta zein sail kudeatu behar duten esleitzeko ahalmena ere, eta haien artetik diputatu nagusiorde bat edo gehiago eta Foru Gobernu Kontseiluko idazkari bat izendatzekoa.

Arau horrek, halaber, ahalmena ematen dio diputatu nagusiari araubidea ezartzeko foru diputatuak aldi baterako ordezkatzeko, kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezindurik egonez gero edo abstentzio edo errefusatze kasuetan.

Uztailaren 5eko Foru Dekretuaren bitartez, Foru Aldundiaren sailak ezarri dira, eta 2019-2023 legegintzaldian bete behar dituzten ardura eta kudeaketa eremuak esleitu zaizkie.

Horregatik guztiagatik, diputatu nagusia naizen aldetik dagozkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ondoren adierazten diren pertsonak foru diputatu izendatzea, eta haien ardurapean jartzen den Aldundiaren saila adieraztea:

- María Pilar García de Salazar Olano andrea, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren burua.
- Cristina González Calvar andrea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren burua.
- María Itziar Gonzalo de Zuazo andrea, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren burua.
- Irma Basterra Ugarriza andrea, Lurralde Oreka Sailaren burua.
- Javier Hurtado Domínguez jauna, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren burua.
- Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Politiken Sailaren burua.
- Eduardo Aguinaco López de Suso jauna, Nekazaritza Sailaren burua.
- Ana María del Val Sancho, jauna, Kultura eta Kirol Sailaren burua.
- José Antonio Galera Carrillo jauna, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren burua.

Bigarrena. Diputatu nagusiaren lehenengo diputatu nagusiorde izendatzea María Pilar García de Salazar Olano andrea, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua eta bigarren diputatu nagusiorde izendatzea Cristina González Calvar andrea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Foru diputatua.

Hirugarrena. Diputatu nagusia ordezteari dagokionez, izendapen hurrenkeraren arabera lehentasun irizpideak Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 25. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Laugarrena. Diputatuak kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezindurik egonez gero edo abstentzio edo errefusatze kasuetan haiek ordeztuko araubideari dagokionez, dagokion diputatuak ordeztuko ditu haien eginkizunak betetzeko, honako ordezte ordenaren arabera:

– Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren titularra ordezkatu du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren titullarrak.

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren titularra ordezkatu du Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren titullarrak.

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren titularra ordezkatu du Lurralde Oreken Sailaren titullarrak.

– Lurralde Oreken Sailaren titularra ordezkatu du Gizarte Politiken Sailaren titullarrak.

– Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren titularra ordezkatu du Kultura eta Kirol Sailaren titullarrak.

– Gizarte Politiken Sailaren titularra ordezkatu du Nekazaritza Sailaren titullarrak.

– Nekazaritza Sailaren titularra ordezkatu du Ingurumen eta Hirigintza Sailaren titullarrak.

– Kultura eta Kirol Sailaren titularra ordezkatu du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren titullarrak.

– Ingurumen eta Hirigintza Sailaren titularra ordezkatu du Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren titullarrak.

Edozein kasutan, ordezketa horiek ez dute ekarriko eskumenaren aldaketarik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatu, María Itziar Gonzalo de Zuazo andrea, Foru Gobernu Kontseiluko diputatu idazkari izendatzea. Ondorio horretarako, kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezindurik egonez gero, dekretu honen xedatze zatiaren bigarren atalean ezarritako hurrenkeraren arabera dagokion foru diputatuak ordeztuko du.

Seigarrena. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatua izendatzea Batzar Nagusietako bozeramaile batzordean Aldundia ordezkatzeko, diputatu nagusia hartara joaten ez denerako.

Zazpigarrena. 2019ko uztailaren 8an, 11:30ean, Foru Gobernu Kontseiluaren eratzte bilkura egiteko deia egitea. Bilera horretan, izendatutako foru diputatuek zin edo promes egingo dute beren karguari dagozkion eginbeharrak zintzoki beteko dituztela, eta karguaz jabetuko dira.

Zortzigarrena. 2019ko uztailaren 8an, 13:00ean, Foru Gobernu Kontseiluaren bilkura berezia egiteko deia egitea.

Bederatzigarrena. Foru dekretu honek ALHAOn argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE